



Arartekoaren ebazpena, 2012ko azaroaren 22koa. Horren bidez, amaitu da Hezkuntza Marko Hirueledunaren (HMH) saiakuntzak egiteko hautatu zen ikastetxe batean ikasleak banatzeko erabili ziren irizpideei dagokien jarduera.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan Hezkuntza Marko Hirueleduneari (HMH) saiakuntza proiektu batean parte hartzeko hautatutako bigarren hezkuntzako institutu batean, derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehenengo mailan hain zuzen, ikasleak taldekatzeko erabili ziren irizpideei lotutako kexa bat jaso zen.

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehenengo mailako ikasleak bost taldetan banatu ziren, honela:

1. A: 25 ikasle. Guztiak eredu hirueledunekoak.
1. B: 25 ikasle. Guztiak eredu hirueledunekoak.
1. C: 23 ikasle
 - 11: eredu hirueledunekoak
 - 12: B eta D eredukoak (horietako 4 ikasturtea errepikatzen ari ziren)
1. D: 22 ikasle. B eta D eredukoak (horietako 5 ikasturtea errepikatzen ari ziren)
1. E: 25 ikasle. B eta D eredukoak (horietako 1 ikasturtea errepikatzen ari zen)

Kexa aurkeztu zuen pertsonak, A eta B taldeko ikasleen egoera C taldeko ikasleen egoerarekin alderatu zuen eta lehenengo egoera "pribilegiatutzat" jo zuen; izan ere, bere ustez, azken taldea "saski-naskia" zen, eredu guztietako ikasleak eta errepikatzaileak barne hartzen baitzituen eta, gainera, ikasturtean zehar ikasle berriak sartzea ahalbidetu zen. Ondorioz, esperientzia hirueleduneari parte hartzen duten ikasleen banaketa orekatuago izateko beharra aldarrikatu zuen.

2. Erakunde honen hasierako esku-hartzeari erantzunez, Hezkuntza Ikuskaritzak egin zuen txostenean hezkuntzaren arloko araudiak Eskola Kontseiluari eta Irakasle Kontseiluari esleitutako funtzioak azpimarratu zituen eta, modu horretan, erabilitako irizpideen jatorria sendotu zuen. Amaitzeko, ikastetxei aitortu zaien pedagogia-, antolakuntza- eta kudeaketa-autonomia baliatu zuen.

Hala ere, erakunde honen ustez, espedientearen izapidetzearekin aurrera jarraitu behar dugu HMHren saiakuntza proiektuak aukeratzeko iragarritako



deialdiaren terminoei lotutako zenbait zalantza argitzen saiatzeko (azkenean baimendu den talde kopurua...), proiektu horrek ikasleak onartzeko prozesuan eduki duen eragina zehazteko eta, azkenik, esperientzia hirueledunean parte hartu duten ikasleen banaketa egiterakoan, jakiteko zein irizpidek eragin duen talde orekatuagoak egiteko aukera baztertu izana.

3. Horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin egindako zenbait izapidere ostean, zehaztu ahal izan dugu 3 taldek eskuratu dutela esperientzia burutzeko baimena. Dena den, sailaren arabera, kopuru hori lehen emandako azalpenaren testuingurua aintzat hartuta ondorioztatu zitekeen; izan ere, azaltzen da ikasleak aukeratzeko ez zutela baremaziorik egin esperientzian parte hartzeko eskaera aurkeztu zuten guztiak onartuak izan zirelako.

Bestalde, izapide horien bidez sailak errepikatu du kexak hizpide duen ikastetxeak ikasleak taldekatzeko aukeratu duen modua zentzuzkoa dela eta, ondoren, aurrera egiten laguntzeko baliabideen banaketan ere koherentea izan dela. Halaber, ondorioztatu du horixe dela hezkuntza administrazioak ikastetxeari egin behar dion exijentzia.

Gogoetak

1. Erakunde honen hasierako esku-hartzeari erantzunez Hezkuntza Ikuskaritzak adierazi zuen moduan, esku artean dugun kexa aztertzeko Euskal eskola publikoaren legeak Euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeei aitortu dien antolakuntza-, pedagogia- eta kudeaketa-autonomia aintzat hartu behar da.

Irakaskuntzako jardueren programa (ikasleak taldekatzeko irizpideak barne hartzen dituena eta Irakasleen Kontseiluak onartu behar duena Ordezkaritza Organo Gorenaren alde aurretiko txostena kontuan hartuta) bezalako agiriari autonomia horren adierazpena edo isla dira.

Zehatzago izateko eta gehiegi ez luzatzeko, Euskal eskola publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 27. artikulua eta hurrengoek eta bigarren hezkuntzako institutueta eta goi-mailako lanbide heziketako institutu berezietan ikasturtea antolatzeari buruzko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa eta Zereginen Ikaskuntzako sailburuordetzen urteko ebazpenek xedatutakoa nabarmendu nahi izan dugu.

2. Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntza prozesuak deskribatzen duen esparru agiria testuinguru horren barruan dago eta esperientzia horren oinarriko ohar gisa azpimarratzen du haren izaera esperimental eta malgua, ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitutakoa.





Agiri horretan ezarritakoaren arabera, deialdiaren xedea ereduen sistema marko baten bidez ordezkatzeko da. Marko horrek, gutxieneko komun batzuk oinarritzat hartuta, ikastetxeei autonomia zabala emango die euren hizkuntza proiektu propioak gauzatu ditzaten. Azpimarratu da, gutxieneko batzuk errespetatuz, ikastetxe bakoitzak autonomia zabala edukiko duela bere hizkuntza proiektu propioa burutzeko. Ez da eredu bakarraren alde egiten, baizik eta euskararen ezagutza eta erabilera sustatu, elebitasuna sendotu eta atzerriko hizkuntzaren erabilera eta ezagutza aktibatu behar duen marko malgu eta hirueledunaren alde. Horrela, HMMHren saiakuntza abian jartzeko orientabideak irekiak eta malguak dira. Proposamen zehatzak antolatzen diren hezkuntza administrazioak ikastetxeen autonomia eta ekimen-ahalmena baliatu du; izan ere, modu horretan erantzukizuna eta erabakiak hartzeko ardura testuinguru hoberen ezagutzen dutenen eta erabakiak hartzeko egoerarik onenean dauden esku jartzen du.

3. Aurrekari horiekin, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zera baieztatu du (hitzez hitz): *“MET ikasleentzat (...) BHMHren kasuan aukeratutako banaketa ikastetxeak duen autonomiarako tartean dago, legearen arabera da eta hau interpretatzen da: ikastetxeak esperientzian parte hartzeak betetzen ditu esperientziaz hirueledunaren baldintzak segurtatzeko aukera emango dioten ezaugarriak.”*

Horren ildotik, honako hau adierazi du: *63 ikasle hiru taldetan banatzeko prozesua era desberdinetan egin daiteke. Guztiak erabil daitezke, hezkuntza-aurrerapenaren eta ikasleen eskola-arrakastaren helburuak jarraitzen badu. Hori bai, egiten duen aukeraren arabera jakatu behar du ikastetxeak eta, arrazoizko eran, taldeetako batek zailtasun handiagoak izan ditzakeela baloratzen badu, talde horietan giza baliabide gehiago inbertitu behar ditu, aurreikus daitezkeen zailtasunak orekatzeko.(...) hau da, hain zuzen, ikastetxeak errepikatzaileak kontzentratzen ziren taldeetan egin zuena.”* Iritzi hori sendotzeko, sailak azaldu du 1. C taldeko emaitza orokorrak irakaskuntzako arazorik ez duen taldeetat jotzen zen taldeetako batean ateratako emaitzak baino altuagoak izan direla.

Ondorioak

Egia da HMMHren jardun esperimentalaren ezaugarri diren orientabide ireki eta malguak ikasleak taldekatzeko hainbat irizpide barne hartzen dituztela, ikastetxeei aitortu zaien antolakuntza-, pedagogia- eta kudeaketa-autonomia gauzatu.

Kexa eragin duen kasuan, aukeratutako sailkapena justifikatzeko argudiatu da baliabide gehiago esleitu dituztela taldeen artean zeuden desberdintasunak orekatzeko. Izan ere, ematen du taldeen ebaluazioaren emaitzek erabilitako estrategia bermatzen dutela.



Edonola ere eta emaitza horiek alde batera utzita, noiz-nolakoak baitira, erakunde honen ustez, komenigarria litzateke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak azterketa sakonagoa egingo balu. Horrela, ondorioztatu ahalko da HMM esperientzian parte hartzeko baldintzak egokiak diren euren prestakuntza akademikoa hezkuntza hirueleduneko proiektu horrekin bat eginez jarraitu nahi duten ikasleen aukera berdintasuna bermatze aldera.

